

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2020ko azaroaren 14tik 20rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2020/11/14

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. – Finantza sistema.** - 7/2020 Legea, azaroaren 13koa, finantza sistemaren eraldaketa digitalari buruzkoa. *2020-14205 xedapena - 19 or.*
- **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA. – Aurrekontuak.** - 1/2020 Legea, urriaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2020ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onesten dituen legea aldatzen duena. *2020-14207 xedapena - 2 or.*

2020/11/16

- **OSASUN MINISTERIOA. – Alarma egoera. Osasun materiala.** - Ebazpena, 2020ko azaroaren 13koa, Osasun eta Farmaziako Sistema Nazionaleko Zerbitzuen Zorro Komunaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen den Sendagaien Prezioen Ministerio arteko Batzordearen 2020ko azaroaren 12ko Erabakia. Horren bidez, publikoarentzako gehienezko salmenta-prezioak berraztertzen dira, uztailaren 24ko 1/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Sendagaien eta osasun-produktuen bermeen eta erabilera zentzuzkoaren legearen testu bateginaren 94.3 artikuluan ezarritakoa betez. *2020-14250 xedapena - 2 or.*
- **ZIENTZIA ETA BERRIKUNTZA MINISTERIOA. – Premiazko neurriak.** - CIN/1062/2020 Agindua, azaroaren 6koa, ekonomia eta enplegua babesteko premiazko neurri osagarriei buruzko apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege-dekretuaren hamabigarren xedapen gehigarriak (parke zientifiko eta teknologikoetako jarduerari finantza laguntza ematekoa) ezarritakoa betearazten duena. *2020-14251 xedapena - 13 or.*

2020/11/17

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA. – Laguntzak.** - 969/2020 Errege Dekretua, azaroaren 10ekoa, zeinaren bidez ezartzen diren, 2020ko ekitaldirako lehen zatiari dagokionez, COVID-19aren ondorioz arrantzaleen flota aldi baterako geldiarazi zela-eta (kontratua bertan behera utzi edo lanaldia murrizteko prozedurarekin), laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia, eta uztailaren 28ko 703/2020 Errege Dekretua aldatzen duen. *2020-14323 xedapena - 30 or.*

2020/11/18

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. – Premiazko neurriak.** - 34/2020 Errege Lege-dekretua, azaroaren 17koa, premiazko neurriak hartzen dituen enpresa-kaudimena eta sektore energetikoa babesteko, bai eta zergen alorrean ere. *2020-14368 xedapena - 35 or.*

2020/11/19

- **OGASUN MINISTERIOA. – Gastu publikoak. Ekitaldi itxiera.** - HAC/1074/2020 Agindua, azaroaren 16koa, 2020ko ekitaldiaren itxiera-eragiketak arautzen dituen, gastuen aurrekontuari eta aurrekontuz kanpoko eragiketei dagozkionez. *2020-14461 xedapena - 5 or.*
- **OSASUN MINISTERIOA. – Alarma egoera. Osasun materiala.** - Ebazpena, 2020ko azaroaren 18koa, Osasun eta Farmaziako Sistema Nazionaleko Zerbitzuen Zorro Komunaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen den Sendagaien Prezioen Ministerio arteko Batzordearen 2020ko azaroaren 18ko Erabakia. Horren bidez, publikoarentzako gehienezko salmenta-prezioak berraztertzen dira, uztailaren 24ko 1/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Sendagaien eta osasun-produktuen bermeen eta erabilera zentzuzkoaren legearen testu bateginaren 94.3 artikuluan ezarritakoa betez. *2020-14466 xedapena - 2 or.*

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2020/11/16

- **GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK.** - EBAZPENA, 2020ko azaroaren 4koa, Gipuzkoako Batzar Nagusiarena, honako Foru Dekretu-Arau hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena: 8/2020 Foru Dekretu-Araua, urriaren 13koa, COVID-19aren zenbait ondorio arintzeko presako neurri osagarriei buruzkoa. *4884 xedapena - 1 or.*

2020/11/18

- **EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA.** - 254/2020 DEKRETUA, azaroaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa. 4947 xedapena - 28 or.

20/11/2020

- **LEHENDAKARITZA.** - 39/2020 DEKRETUA, azaroaren 20koa, lehendakariarena, zeinaren bidez bigarrenez honako dekretu hau aldatzen baita: 36/2020 Dekretua, urriaren 26koa, lehendakariarena, zeinaren bidez osasun publikoko prebentzio-neurriak hartzen baitira alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapenari eusteko. 232 xedapena - 1 or.

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2020/11/18

- **FORU AGINDUAK (NEKAZARITZA SAILA).** -
 - 361/2020 Foru Agindua, azaroaren 11koa, alarma-egoera deklaratzearen ondorioz basurde-uxaldiak egiteko ezohiko neurriak ezartzen dituen. 3534 xedapena - 3 or.
 - 367/2020 Foru Agindua, azaroaren 17koa. Aldatzea Nekazaritza Saileko diputatuaren azaroaren 11ko 361/2020 Foru Agindua, zeinaren bidez basurde uxaldiak egiteko ezohiko neurriak ezarri baitziren alarma egoera deklaratzearen ondorioz. Zuzendua: 2020/3534. 3535 xedapena - 1 or.

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2020/11/18

- **LAN ETA ENPLEGU SAILA.** - Erabakia Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Bizkaiko Eraikuntza sektoreko hitzarmen kolektiboaren 2021eko laneko egutegia erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48000715011981). 263 xedapena - 2 or.

2020/11/19

- **Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.** - Bizkaiko Foru Aldundiaren 97/2020 FORU DEKRETUA, azaroaren 17koa, zeinaren bidez aldatu egiten

den Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 22ko 60/2011 Foru Dekretua, gizarte inklusiorako laguntza berezia arautzen duena. 739 xedapena - 2 or.

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2020/11/17

- **DIPUTATU NAGUSIA.** - 7/2020, azaroaren 16koa, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak, eta horiei dagozkien jardun esparruak eta eginkizunak berriro finkatzekoa. 6099 xedapena - 6 or.

2020/11/18

- **DIPUTATU NAGUSIA.** - 23/2020 Foru Dekretua, azaroaren 17koa, Gipuzkoako Foru Aldundiko oinarritzko departamentu egitura berriari buruzkoa. 6109 - 3 págs
- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 10/2020 Foru Dekretu-Araua, azaroaren 17koa, epe luzerako zorpetzearen gehieneko muga 2020ko ekitaldirako handitzen duena. 6111 xedapena - 2 or.

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es



MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAIO, 26 - 48009 BILBAO